

## ESANAK

**ENRIQUE MUJICA HERZOG**

(Espainiako Herri Defendatzailea)

«Abertzaletasunaren aitzakiarekin, zuzenbidezko estatutik kanpoko botere borroka bat ezkututzen ari dira»

**FRANCISCO JOSE HERNANDO**

(CGPJko presidentea)

«Isuritako odolean sostengatzen diren mutazio politikoak eta demokrazia bateraezinak dira»

**JUAN JOSE IBARRETXE**

(Eusko Jaurlaritzako lehendakaria)

«Pertsona bakar bat mehatxatuta dagoen bitartean, ez dugu atsedetik hartuko»

**JOSEBA AZKARRAGA**

(EAEko Justizia sailburua)

«Mujika Herzog ez da herri defendatzailea, Aznarren tesien defendatzailea baizik»

sendotasun etikoari» esker, ETA egunetik egunera «inguratuago» dagoela esan zuen ministroak eta Batasuna legez kanpo uztearen alde agertu zen, indarkeria amaitzen lagunduko duelakoan.

Hemen epaile eta fiskal guztiek «bizkartzaina» daramatela gogoratu zuen Michavilak, «ez bakarrik lanean, baita bere seme-alabak ikastetxera eramateko ere». Honen haritik, «pozik» agertu zen Europako Batasunak «bat egiten duelako Espainiarekin terrorismoaren aurkako borrokaren arloan».

EBko Auzitegi Gorenetak presidenteez bere egin zituzten Michavilaren hitzak, baina «terrorismoaren aurkako borroka oinarrizko eskubideen errespetutik» egin behar dela azpimarratu zuten atzoko ekitaldian.

**Azkarragaren erantzuna Mujika Herzogi**

Enrique Mujika Herzogen jokera gogor kritikatu zuen Joseba Azkarraga Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuak, ekitaldia bukatu ondorengo adierazpenetan. Espainiako Herri Defendatzaileak Lidonen aldeko ekitaldia «Eusko Jaurlaritzaren aurkako plataforma» bihurtu zuela salatu zuen. «Mujika Herzog jauna ez da herri defendatzailea, Aznarren tesien defendatzailea baizik», esan zuen.

# Heriotza mehatxuak jaso dituela esan du Ruth Alonsok

## Hedabide eta kazetari batzuen aurka kereila jartzea pentsatzen ari da

Erredakzioa | BILBO

Jose Maria Lidon epailearen omenezko ekitaldiak bitxikeria bat baino gehiago utzi zuen, baina bitxikerietan bitxierna CGPJko presidente Francisco Hernando, eta Ruth Alonso Bilboko Espetxe Zaintzako epailea toki berean elkartu izana izan zen.

Duela egun batzuk, Hernandok eskatu zuen Alonso ikeritzeko, urriaren 23an, hark Ramon Gil Ostoaga euskal preso zigorra bete gabe aske utzi zuelakoan. Asteon, baina, CGPJk Alonsoren aurkako dilijentziak artxibatzea deliberratu du, baldintzapeko askatasuna ematean Alonsok bere lana betetzen ziharduera arrazoitu-ta.

Espainiako Gobernuak, zenbait erakunde judizialek eta hedabide batzuk egindako kritiken ondotik, «berak eta bere familiak heriotza mehatxuak jaso» dituztela jakinarazi zuen Alonsok, atzo Euskaldunan. Bere hitzetan, mehatxuak mehatxu, «ez dute beren helburuak lortu, guztiz bestera, hainbat jende ezezagunaren babes jaso dugulako».

Bere aurkako salaketak «bere karrera pikutara bidal-

tzeko» asmoz egin izan direla adierazi ondoren, «zenbait hedabideren aurka kereila bidez jotzea» pentsatzen ari dela jakinarazi zuen, «baina gauzak lasaitzen direnean».

Ruth Alonsok kritikak onartu onartzen dituela adierazi zuen, baina jarraian zehaztu ez dituela gogoko izan «[Espainiako] Gobernutik eta hedabide eta kazetari batzuk egindako informazioak eta iruzkinak».

**«Urdanga»**

Honen harira, Bilboko Espetxe Zaintzako epaileak gogoratu zuen «urdanga» deitu diotela besteak beste. Alonsok aipatu ez arren, irain hori Aznar presidentearen ahotik irten zela jakinarazi zuten zenbait hedabidek, eta gaur gaurkoz Moncloatik inork ez du albiste gezurtatu. Sekta (adbertista) bateko kide dela ere egotzi zioten, eta baita bere lanbiderako «ezgauza» dela ere.

Bere aurkako dilijentziak artxibatu izanagatik «pozik» dagoela esan ondoren, Ruth Alonsok esan zuen «agindu konstituzionala» betetzen jarraituko duela epaitegian. Konstituzioak presoen «gizarteratzea» bultzatzen duela gogoratu zuen.

## Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralaren sorrerari buruz negoziatzeko prest da PSOE

Erredakzioa | BILBO

Auzitegi Nazionalen Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralaren sorrerari buruz adostasuna lortzeko prestutasuna agertu dio PSOEek Espainiako Gobernuari. PSOEko Askatasun Publikoetako eta Lurralde Garapenerako idazkari Juan Fernando Lopez Aguilarrek atzo adierazi zuenez, PSOE ados legoke Auzitegi Nazionalen Espetxe Zaintza Epaitegi Zentrala sortzearekin. Egokiena epaitegi batzuk sortzea litzate-

keela adierazi zuen Lopez Aguilarrek, betiere Auzitegi Nazionalaren barruan.

«Terrorismoa», narkotrafikoa eta krimen antolatuari lotutako presoen inguruko irizpideak bateratzeko Auzitegi Nazionalen kokatuko litzatekeen Espetxe Zaintza Epaitegi Zentrala sortzea erabaki zuen Espainiako Gobernuak orain bi aste, hain zuzen ere, Ruth Alonso epaileak Gil Ostoaga preso aske uzteko erabakia hartu zuela-eta ika-mika piztu zen aste berean.



TXEMA FERNANDEZ / EFE

Juan Jose Ibarretxe, Ruth Alonso epailea agurtzen, atzo, Bilbon.

# Bitxi, Opari eta Moda Osagaien 8. aretoa

Soil-soilik profesionalentzat



BILBAO  
2002KO AZAROAK 9/11  
10:00ETATIK 20:00ETARA

FERIA INTERNACIONAL DE BILBAO  BILBOKO NAZIOARTEKO ERAKUSTAZOKA ISO-9001

468 p.k. - 48080 BILBAO (Espainia) - Tel: (34) 944 285 400 - Fax: (34) 944 424 222  
www.feriadebilbao.com